



## **AGINDUA, 2021EKO EKAINAREN 1KOA, BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ HASIERA EMATEN BAITZAI GIZARATERATZEAREN EUSKAL AGENTZIA SORTZEKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI**

### **Arauaren esparrua.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak —abenduarien 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartua berau— Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dio 10.14. artikuluan espetxeetako erakunde eta establezimenduen antolaketa, araubide eta funtzionamenduari buruzko eskumen eskusiboa, espetxeen gaineko legeria orokorraren arabera. Halaber, Estatutuaren 12. artikuluari jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio Estatuaren legeria betearaztea espetxeen gainean.

Arau horien arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Batzorde Mistoaren Osoko Bilkurak, 2021eko maiatzaren 10ean, Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko erabakia hartu du, espetxeen gainean Estatuaren legeria betearazteko.

Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartu dituen eginkizunen artean dago espetxeetan barneratuta daudenei lan egiteko bidea ematea; izan ere, eskubide eta betebeharrak bat da hori barneratuta dagoen pertsona ororentzat, Espetxeei buruzko irailaren 26ko 1/1979 Lege Organikoaren 26. artikulua arabera.

Testuinguru horretan, barneratuek modalitate produktibo ez-kooperatiboan lan egiteko, Lege Organiko horren 27.1.c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, erakunde autonomiko espezifikoa bat behar da, enplegatzaile-eginkizunetan jardun dezan zigortutakoen lan-harreman bereziaren arloan, lan-harreman berezi hori arautzen duen uztailaren 6ko 782/2001 Errege Dekretuak 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ondorioz, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak erakunde autonomiko bat sortzeko legearen proiektua egiteko aukera eta egokitasuna aztertu ditu, erakunde horrek sustatu, antolatu eta kontrolatu ditzan Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetan barneratuta dauden pertsonen produkzio-lana eta enplegurako prestakuntza eta orientazioa.

Proiektuak eta hura izapidetzeko prozedurak bat etorri beharko dute Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren Legean ezarritako bidearekin (8/2003 Legea, abenduaren 22koa).

Zehazki, abenduaren 22ko 8/2003 Legeak 4. artikuluko lehen zerbakiaren xedatzen du «xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien arloan eskumena duen saileko sailburu titularren aginduz» hasiko dela.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak du eskumena, halaxe zehazten baita Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuan eta Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuan.

## **Arauaren xedea eta helburua.**

Arauaren xedea da zuzenbide pribatuko erakunde publiko bat sortzea, erakunde horrek sustatu, antolatu eta kontrolatu ditzan Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetan barneratuta dauden pertsonen produkzio-lana eta enplegurako prestakuntza eta orientazioa.

Arauaren helburua da erakunde bat sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetan barneratuta dauden pertsonen aukera eman diezaien produkzio-lanerako eskubidea baliatzeko eta lan egiteko betebeharra betetzeko, espetxeen gaineko legeria orokorrean eta hura garatzeko xedapenetan ezarritakoaren arabera.

## **Premia**

Nahitaezkoa da nortasun juridiko propioa duen erakunde bat edukitzea, espetxeetako administrazio nagusitik bereiz, Estatuko *Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo* erakundeak betetzen zuen enplegatzailer-jarduna bete dezan espetxeetan barneratuta dauden gutxienez 354 langileri begira.

Erakunde horrek abian egon behako du 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen. Bestela, ezinezkoa izango da ehunka langile horien lan-harreman bereziei eta gizarte-segurantzako beren kotizazioei jarraipena ematea, eta, beraz, urratu egingo dira ez soilik haien lan-eskubideak, baita laneratzeko eta gizarteratzeko aukerak ere. Halaber, kanpo-erakundeekin lankidetzan garatzen ari ziren lantegi produktiboen etorkizuna ere kolokan gera liteke; izan ere, lantegi horiek etenez gero, gerta liteke ondoren ez jarraitzea, erakunde lankideen interes-faltagatik.

## **Proposatutako erregulazioaren edukia.**

Arauan erakundearen izena eta izaera juridikoa adierazi beharko dira, bai eta haren eginkizunak, gobernu-organoak, araubide ekonomikoa, langileen araubidea eta antolamendu eta funtzionamenduko araubidea ere. Alderdi horiek guztiak oinarritzkoak dira erakundea eratzeke.

## **Bideragarritasun juridikoa eta materiala.**

Autonomia Estatutuaren 10.14. artikulua eskumen eskusiboa ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoari espetxeetako erakunde eta establezimenduen antolaketa, araubide eta funtzionamenduaren gainean, bat etorrita espetxeen arloan ezarritako legeria orokorrarekin.

Espetxeetako lantegietan lan-jarduerak egiten dituzten zigortuen lan-harreman berezia eta gizartearentzako lanak egin behar dituztenen Gizarte Segurantzaren babesa arautzen dituen uztailaren 6ko 782/2001 Errege Dekretuak 2. artikuluan ezartzen duenez, beharrezkoa da erakunde autonomiko espezifiko bat egotea, enplegatzailearen funtzioa bete dezan zigortuen lan-harreman berezietan.

Era berean, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak 12., 13. eta 17. artikuluetan jasotako lege-aurreikuspenen arabera, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta erakunde autonomoak sortzeko, beharrezkoa izango da kasuan kasuko legea onartzea.

### **Ordenamendu juridikoan dituen ondorioak.**

Agindu honen bidez hasiko den prozedurarekin lotutako legea onartzeak ez ditu indargabetuko edo aldatuko hura indarrean jarri arte indarrean dauden xedapenak.

Ondoren, lege hori garatzeko beharrezko diren arau-xedapenak onartuko dira, legean bertan zehazten diren baldintzen arabera. Baldintza horien artean dago haren antolaketa eta funtzionamendua arauen bidez garatea, bai eta sortutako erakundearen jarduerari hasiera emateko prozedura arautzea ere.

### **Eragin ekonomikoa eta aurrekontu-eragina.**

Abenduaren 22ko 8/2003 Legeak 10.3. artikuluan xedatzen duenarekin bat, dagokion memoria ekonomikoa egingo da, etorkizuneko araua aplikatzeak dakarren kostua eta EAEko Aurrekontu Orokorretan duen eragina aztertzeko. Era berean, memoria horretan jasoko da arauak beste administrazio batzuetan eta ekonomian, oro har, izango duen eraginaren analisi bat ere.

### **Egokitzat jotzen diren izapideak eta txostenak.**

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeari jarraikiz, prozedura hasteko aginduak adieraziko ditu zer izapide eta txosten diren bidezkoak dagokion arloan.

1.– Gobernu Kontseiluak 2010eko abenduaren 28ko bileran hartu zuen erabaki bat, xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituena. Erabaki horren lehenengo apartatuan (1. puntua) xedatuta dagoenaren arabera, EA Eren Administrazioako gainerako sailei eta Gobernuaren eragile juridikoei jakinaraziko zaie sustatutako araugintza-ekimena, hasiera-agindu hau LEGESAREA ezagutza partekatua lankidetzarako gunean argitaratuz, helbide honetan: <http://elkarlan.jakina/webguneak/legesarea>.

2.– Lege-aurreproiektuaren testua idazteko, agindu honen edukia hartuko da aintzat, eta kontuan hartuko dira bilatzen diren helburuetara ondoen egokitzen diren aukera guztiak, bai eta aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezkontasuna bermatzeko beharrezkotzat joko eta egingo diren kontsulten emaitzak ere.

3.– Aldez aurretik onetsi beharreko arau-ekimenaren azken testua euskaraz eta gaztelaniaz idatzi behar da, halaxe agintzen baitu Gobernu Kontseiluaren 2013ko

maiatzaren 14ko Erabakiak, zeinak legeen, legegintzako dekretuen, dekretuen eta aginduen mailako xedapen orokorrak ele bitan egiteko neurriak onartu baitzituen.

Horretarako eta egokiro bermatzeko aldez aurretik onetsi beharreko testuaren euskarazko bertsioa zehatza dela eta gaztelaniazkoaren baliokidea dela —eta alderantziz—, euskarazko bertsioa Eusko Jaurlaritzako Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak idatziko du.

Espedienteak, aipatutako memoria ekonomikoaz gainera, barnean hartuko du, halaber, arauaren premiazkotasunari, egokitasunari eta helburuei buruzko justifikazio-memoria. Era berean, enpresetan duen eraginari buruzko ebaluazioa ere jaso behar da memorian, halaxe baitago xedatuta Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan.

Lege-aurreproiektua aldez aurretik onetsi ondoren, testua Eusko Legebiltzarrerara bidaliko da, hori xedatzen baitu Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeak 56.1. artikuluan —7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legearen idazketan—.

Aldez aurreko onespeneraren agindua eta, harekin batera, araugintza-proiektua Legesarea lankidetzagunearan emango dira argitara (2010eko abenduaren 28ko Erabakiaren 1.2. zenbakia).

Jarraian azalduko diren txostenak jasoko dira, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak 14. artikuluan ezarritakoaren arabera. Izan ere, artikulua horretan xedatzen denez, behar bezala egiaztatutako presazko arrazoiak direla-eta ezin bada bete xedapen orokorraren gaia arautzen duten arauak aurreikusitako prozedurazapideren bat, badago, arrazoiak emanaz, izapide horiek alde batera uztea, non eta lege-mailako arauak edo lege-indarra dutenek ez dituzten izapide horiek nahitaez eskatzen.

- Zerbitzuen Zuzendaritzaren Aholkularitza Juridikoaren txostena, bat etorrira Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuaren 9. artikuluekin, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42.1.a) artikuluan eta abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.3. artikuluan ezarritakoari lotuta.

- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikuluan agindutakoari jarraikiz.

Hala ere, kasu honetan, ez da beharrezkoa generoaren arabeko eragin-txostenik. Izan ere, hertsiki antolakuntza-izaerakoak diren arauak salbuetsita daude txosten hori egitetik, halaxe zehazten baitu genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak ezartzeko Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiz onartutako jarraibideetako lehenengoak 2.1.b) apartatuan (Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpen bidez argitaratu ziren jarraibideok).

- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Funtzio Publikoko Sailburuordetzaren Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostena, aintzat hartuta zer xedatzen duten, batetik, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak

6.1.a) artikuluan, eta, bestetik, urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuak, zeinak aipatutako sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen baitu.

- Langileen ordezkariekin kontsultatu edo negoziatuko dira lan-baldintzekin lotutako gaiak. Elkarrizketa hori Eusko Jaurlaritzaren barruan Administrazio Orokorren Zerbitzuan edo hari atxikitako erakundeetan lan egiten duten langileen lan-baldintzen negoziazio kolektiborako ezarritako sistemaren esparruan egingo da, bat etorrita Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37.2. artikuluekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearekin.

- Arauen kontrol ekonomikoaren txostena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak emana arau hauetan ezarritakoaren arabera: urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko testu bategineko III. tituluko IV. kapitulua, eta urriaren 31ko 464/1995 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen.

- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legeak 3.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Esparru horretan eta Jaurlaritzari buruzko Legearen 56.2. artikulua xedatutakoa betez — Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legeak emandako idazkeraren arabera—, «*Aholku Batzorde Juridikoari igortzen zaion dokumentazio bera, aldi berean, Eusko Legebiltzarrari ere igorriko zaio, legebiltzar-taldeek dokumentazio hori ezagut dezaten*».

Antolamendu-izaerako xedapen bat denez gero, entzunaldiaren izapidetik salbuetsita dago proiektua, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak 8.5. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Ez da beharrezkoa EAeko gainerako administrazio publikoei kontsulta egitea, antolamendu-izaerako araua baita, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren erakunde autonomoak dituen aplikazio-eremu.

### **Europar Batasunaren aurreko izapideak.**

Ez da ikusten Europar Batasunaren aurrean inolako izapiderik egin beharrik.

### **Idazketa-sistema.**

Aurreproiektu hau idazteko, Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakiari men egingo zaio, haren bidez onartu baitziren lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak.

Horretarako eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarritzko Legeak 8.1 artikuluan ezarritakoa betetzeko, Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) itzulpena egingo du, bat etorrita apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuarekin, zeinaren

bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzen baitira.

### **EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa:** Hasiera ematea Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzeko Legearen aurreproiektua egiteko prozedurari.

**Bigarrena:** Justizia Sailburuordetza izendatzea prozedura hori izapidetzeko organo.

**Hirugarrena:** Prozedura premiazkoa dela adieraztea, ahalik eta arinen egin daitezen lege-aurreproiektu hau onartu eta argitaratzeko izapideak, aldaketa handirik gabe jarraipena eman diezaioten espetzeetan espetze-lanaren eta enplegu-prestakuntzaren jardunari.

**Laugarrena:** Agindu honen berri ematea “Legesarea” lankidetzaren gunean, hala xedatuta baitago Xedapen Orokorrak Izapidetzeko Jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian.

**Bosgarrena:** Egin beharreko azterlan, txosten eta kontsultak egitea, araua eratzeko eta hura egokia eta legezkoa dela bermatzeko.

**Seigarrena:** Xedapen orokorrak izapidetzeko eredia eta Tramitagune aplikazio informatikoa erabiltzea, Gobernu Kontseiluaren erabaki hauekin bat etorrira: 2010eko abenduaren 28ko Erabakia, xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen; eta 2012ko azaroaren 27ko Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozeduraren tramitazio elektronikorako jarraibideak onartzen dituen.

**Zazpigarrena:** Aktiboki argitaratzea prozedura garatu ahala sortuko den garrantzi juridikoko informazio guztia, bat etorrira Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 16/2013 Legearekin.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko Ekainaren 1a.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,  
**BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ**